



Jose Lejarretaren 41 argazki osatzen dute erakusketa. Urtarrilaren bukaerara arte egongo da zabalik Durangoko Arte eta Historia museoan. MARISOL RAMÍREZ / ARCAZHO PRESS

Karlisten argazkilaria

MIKEL CARRAMIÑANA
Durango

Euskal Herrian gertatu izan diren gerra moderno- etako irudi gutxi heldu da gaur egunera, izan ere, XX. mendearen hasieran argazkilaritzak muga handiak zituen eta, horrez gain, askoz garestiagoa zen egungo kamera digitalek dituzten aukera aniztasunen eta salneurri apalen aldean. Horregatik zaila da

Bigarren Gerra Karlistako protagonistei «aurpegia» jarri zien Jose Lejarretaren argazkiak bildu dituzte Durangoko Arte eta Historia museoan, erakusketa batean.

pentsatzea XIX. mendeko gerretako argazkiak ere badirela, egunotan Durangoko (Bizkaia) Arte eta Historia Museoan ikusgai jarri dituztenak kasu, Jose Lejarreta Arregi (1838-1895) iurretarrak bigarren gerra karlistan eginikoak, 1873. urtean gerra hasi zenetik Alfontso XII.a Durangon sartu arte, 1876an.

Duela hogeitaz inguru hasi ziren museoko ikerlariak Lejarreta-

ren lanaren inguruko ikerketak egiten, Jose Maria Uriartek erakusketaren dokumentazio lanak egin ditu, eta, esan zuenez, duela urte asko ekin zioten historialariek bigarren gerra karlistako irudiak biltzeari, «80ko hamarkadan hasi ziren halako gauzak egiten, Enrike Saez Sanpedro eta Jose Mari Tuduri izan ziren aitzindariak». Durangoko museoan ikusgai dauden irudi guztiak Victor

Sierra-Sesumagak bildu ditu azken hamarkadetan, «harena da egungo bildumarik handiena, kopiak eta originalak lortu ditu, gehienak oso formatu txikian egiten ziren garai horretan».

Uriartek azaldu zuenez, lanaren kalitatearen gainetik dago argazkiek islatzen dutena, «garai hartako lekukotza da, artearen aldetik gutxi eskain dezakete Lejarretaren argazkiek, baina gerra karlistako protagonistei aurpegia jarri

Lejarretaren argazkiek bigarren karlistaldiko lekukotza garrantzitsua eskaintzen dute



Brontzezko lehenengo kanoia.



Militarrak eta karlista ezagunak Durangoko kale batean.